

Hermen Anglada-Camarasaren

Biluzia mahastiaren azpian



Francesc Fontbona

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berariazko baimena eman ezean.

- © Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao
- © Anglada-Camarasa, VEGAP, Bilbao, 2012
- © Fritz Klimsch, VEGAP, Bilbao, 2012

Argazki-kredituak

- © Archivo Familia Anglada-Camarasa: 8. ir.
- © Arxiu Mas: 2. eta 4. ir.
- © Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao: 1. eta 9. ir.
- © Colección Anglada-Camarasa. Fundació «la Caixa»: 3., 5. eta 10. ir.
- © Colección Masaveu: 6. ir.
- © Heimatmuseum Köpenick: 7. ir.

Argitalpena:

Buletina = *Boletín* = *Bulletin*. Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 6. zenb., 2012, 175.-196. or.

Babeslea:



metro bilbao

Hermen Anglada-Camarasa margolaria 1871ko irailaren 11n jaio zen Bartzelonan, eta, bizitzari dagokionez, Kataluniako eskolan lar integratuta egon ez bazen ere, Parisen izan zuen nazioarteko mailako lehenengo arrakasta, hantxe bizi izan baitzen, etenen bat edo besterekin, 1894tik 1914ra. Parisen zegoela, lan lauso samarrak egin zituen, masa kromatiko goibeletan eta kolore irisatuetan oinarrituak, sarri askotan Frantziako hiriburuko gaueko bizimodu azalekoan oinarritutako argumentuak erabiliz, nabi eskolatik hurbil zegoen postinpresionismoaren ikuspegi pertsonala ardatz hartuta.

Angladak eskola horretatik hurbil zeuden loturak zituen, eta, gainera, Académie Julian delakoan ikasi zuen –nabi ildoko margolariak ere bertatik igaro ziren–. Bestetik, adiskidetasun handia zuen René eta Carlos de Castéra anaiekin –musikaria eta margolaria ziren, hurrenez hurren–; hain zuzen ere, bi horiek izan ziren Frantzian bere lanak bildumatu zituzten lehenengoetakoak, eta euren lagunetako bat Maurice Denis zen, eskola berritzaile haren ezaugarri teorikoak modurik argienean definitu zituen margolaria¹.

Baina 1904an, udan, Anglada Valentziara joan zen bidaiari, Eduardo López Chávarri konpositorearen eskutik; eta, hain zuzen ere, bidai horri esker, Valentziako janzkera herrikoia aukera kromatikoak agerian geratu zitzaizkion, eta, bertan denboraldi laburra egin zuen arren, urte luzez gai horiek jorratu zituen, mende hasieratik noizean behin lantzen zituen ijitoen gai folklorikoekin batera. Eta hori guztia, Paristik irten gabe.

Angladaren folklorismoak, baina, ez zuen inongo zerikusirik garai hartako zenbait margolari espainiarren anekdotismo popularistarekin (horien artean zeuden Sotomayor, Sorolla, Chicharro, Rodríguez Acosta edo Hermoso), denak ere hemeretzigarren mendeko kostunbrismotik eratorritakoak. Anglada, aldiz, postinpresionismotik zetorren, eta, berarentzat, janzkera herrikoia elementuak ez ziren identitate-ikur pintoreskoa, baizik eta kolore bizien eta kontrastez betetako koloreen arteko konbinazioak egiteko aitzakiarik egokiena.

1 Castératarren eta euren inguruko mundu kultural trinkoari buruz, non Anglada ere integratuta zegoen, ikus Beaupuy/Gay/Top 2004.



© Babestutako materiala

1. Hermen Anglada-Camarasa (1871-1959)
Biluzia mahastiaren azpian, c. 1909-1910
Olioa mihisean. 140 x 85 cm
Bilboko Arte Ederren Museoa
Inb. zenb. 82/517

Angladak oso modu handinahian planteatu zuen bere ibilbideko arlo materiala. Konturatu zen hobe zela arte-lan gutxi baina prezio altuetan saltzea, ezen ez asko saltzea baina merkeegi. Horrela, egiten zuen salmenta bakoitzarekin, diru-sarrera handiak lortzen zituen, eta, gainera, aldi berean, bere kondaira haziz zihoan eta bere obra ez zen hutsalkeria gisa agertzen, zeren, bestela, bere lanek gehiegi zirkulatuko lukete eta gutxiegi baloratuak izango lirateke. Sistema honek beste abantaila bat ere bazuen: bere pintura modu zabalean hedatu zezakeela, zeren eta, horrela, XX. mendeko lehenengo hamabost urteetan, bere obrarik landuenak Europa erdian eta Amerikako zati handi batean erakutsi ahal izan zituen, harik eta bildumagile, museo edo erakunderen batek eskuratzen zituen arte, lan horiek hainbat herrialdetako erakusketatan –eta aldizkaritan– plazaratu ostean.

Horixe bera da Bilboko Arte Eder Museoaren jabetzako *Biluzia mahastiaren azpian* lanarekin gertatu zena: 1909 inguruan pintatu zuen –data zehatza ez dago dokumentatuta, baina 1910ean Argentinan jarri zuen ikusgai, erakusketa batean–, baina ez zuen behin betiko kokalekurik izan hamar urte geroagora arte, gutxienez².

Biluzia mahastiaren azpian lana oso pintura berezia da Angladaren obraren barruan; izan ere, artistak biluzien marrakzi ugari egin zituen (batez ere emakumezkoenak), eta maiz jartzen zituen ikusgai olioekin batera, baina gai horri buruzko margoak ez ziren batere ohikoak³. Neurri handiko lana da –ia neurri naturalekoa–, eta, bertan, aurrez aurre ikusitako emakume bat agertzen da; ilea lore batzuekin apaintzen ari da, eta, horretarako, esku biak jartzen ditu buru gainean. Hori horrela, aurpegia erabat ikusten zaio, besoek ez baitute inondik ere estaltzen. Esan daiteke bere jantzia irristatu egin dela sexuaren muga-mugaraino, bere soin biluzia agerian geratuz. Bere gorputzaren beheko aldea, eroritako soinekoak estaltzen dituen hankak, agertu ere ez dira egiten koadroan, mihisearen ertza figuraren belauen paretik igarotzen da eta.

Konposizioa –atzealdean estapanpatutako inskripzio batek dioenez– olioz eginda dago, Frantziako hiriburuko Saint Benoit kaleko 20. zenbakian zegoen Blanchet etxeko mihise batean⁴. Hain zuzen ere, Parisen bizi zenean, Angladak denda hartantxe erosten zituen material piktorikorik gehienak, gutxienez 1902. eta 1911. urteen artean, eta margolari ugari ziren bertako bezero; besteak beste, James Whistler, Maxime Maufra edo Álvaro Alcalá Galiano espainiarra.

Anglada ez zen margolari berezkoa, ezpada erreflexiboa. Bere pinturak, sarri askotan, leherkorra dirudi eta gehiegizko kromatismoa duela ere ematen du, baina ez zen bat-batean sortzen, baizik eta oso ondo pentsatutako plan baten ondorioz. Beraz, bere lanen atzean prestakuntza zorrotza zegoen. Esan daiteke, koadro bat egin aurretik, buruan zeukala oso-osorik; diotenez, halaxe gertatzen zitzaion Alfred Hitchcocki ere, plano bat filmatu behar zuenean: eszena hura bisoretik ikusi aurretik, burmuinean ederto antolatuta eta ikusita zeukan dena. Alfons Borrell margolari abstraktu kataluniarrak Port de Pollençan egin zuen soldadutza, eta, beraz, maiz ikusi zuen Anglada lanean; bada, Borrellek zioenez, Angladak mihisearen bazter batetik hasi zuen koadro bat, eta aurrera egin zuen harik eta kontrako bazterrera heldu arte, tapiz bat egiten egongo balitz bezala. Horrek argi eta garbi esan nahi du Borrellen garaiko Anglada agure hark modu berean jokatu zezakeela beti: koadroa eginda zegoen bere buruan, tapiz moduko haren «kartoia» trazatuta zegoen, eta egin behar zuen gauza bakarra zen ideia hura pintzelekin garatzea, behin betiko euskarriaren gainean. Eta halaxe egiten zuen.


2 Margoa Bizkaiko Diputazio Probintzialak (orain, Bizkaiko Foru Aldundia) eskuratu zuen, 1919ko irailean, Bilboko Pintura eta Eskulturako Lehenengo Nazioarteko Erakusketan. 1920an sartu zuten Bilboko Arte Eder Museoan. Beheko angeluan dago sinatuta, ezker aldean («HERMEN. ANGLADA-CAMARASA»). Lan hau C30 zenbakiarekin dago katalogatuta gure monografian (Fontbona/Miralles 1981, 260. or.; koloretan erreproduzitua 89. or.).

3 Lan hau aparta da Angladaren lanaren barruan, eta, hori dela eta, Camilo José Celak margoaren erreprodukzio bat sartu zuen Enciclopedia del erotismo lanean (Madrid 1976).

4 Mihisearen atzeko aldean «Blanchet/20/Rue Saint Benoit/Paris» irakur daiteke.



2. Hermen Anglada-Camarasa (1871-1959)
Zerra valentziarrak, c. 1907
 Olioa mihisean. 70 x 100 cm
 Bilduma partikularra, Bartzelona
 Xehetasuna



3. Hermen Anglada-Camarasa (1871-1959)
Valentzia, c. 1910
 Olioa mihisean. 580 x 612 cm
 Col·lecció HAC de la Fundació "la Caixa"
 Inb. zenb. HACF0801
 Xehetasuna

Hori dela eta, ez da arraroa *Biluzia mahastiaren azpian* lanak zenbait aurrekari izatea artistaren lanean. Angladaren lanetako batzuetan, koadro honetako emakumezkoaren antzekoak diren figurak agertzen dira. Bartzelonako bilduma partikular baten jabetzakoa den *Zerra valentziarrak* [2. ir.] lanean, figura nagusia zaldian doa, eta ileetako loreak ukitzen ari da, aztertzen ari naizen koadroko antzeko jarreretan. Gauza bera gertatzen da *Valentzia* [3. ir.] olio izugarriko emakumezko figura nagusiarekin, eta Angladaren beste lan batzuetan agertzen diren jarrerak ere, honen berdina ez badira ere, oso antzekoak dira. Badago olio bat, *Emakume ijitoa* [4. ir.] izenekoa, margolariak Parisen bizi zen Oscar Amoedo lagun eta dentista ospetsuari eskaini ziona⁵, *Biluzia mahastiaren azpian* honen entsegu orokorra dela esan daitekeena, baina desberdintasun batekin: figura jantzita dagoela eta, gainera, pintatzeko modua askeagoa dela⁶.

Zaila da zehaztea zein ordena kronologikotan dauden kokatuta aipatutako lanak, zeren eta Angladak, sarri askotan, ez zituen koadroak datatzen, eta, beraz, normalean, datak koadro horien lehenengo erakusketatik abiatuta zehaztu behar dira, edo, bestela, aldizkari edo liburu batean agertzen diren lehen aldiaren arabera. Esango nuke, baina, nahiko argi dagoela Amoedo doktorearena izandako koadroa Bilbokoa baino dezente lehenagokoa dela –esan bezala, 1910ean jarri zen ikusgai lehen aldiz–, zeren eta koadro horren estiloa hurbilago dago Angladak Parisen mende hasierako urteetan egiten zituen margoetatik, helduaroko lanetatik baino, azken horiek gai folklorikokoak ziren eta.

5 Pertsonaia honi buruz, ikus «El Dr. Oscar Amoedo...» 1900.

6 Oso lan ezaguna da, berarekin ilustratzen baita Anglada-Camarasari buruzko sarrera, Grand Larousse Universel lanean (Paris, 1989, I. lib., 475. or.).



4. Hermen Anglada-Camarasa (1871-1959)
Emakume ijitoa, c. 1905-1906
 Olioa mihisean. 116 x 81 cm
 Bilduma partikularra



5. Hermen Anglada-Camarasa (1871-1959)
Biluzia mahastioaren azpian lana prestatzeko marrazkia, c. 1909
 Ikatz-minadun arkatza eta ikatz-ziria, kraft motako paperean
 (beste paper baten gainean kolatua). 104 x 70,5 cm
 Col·lecció HAC de la Fundació "la Caixa"
 Inb. zenb. HACF0721

Angladak, *Biluzia mahastiaren azpian* lana egiteko, neurri handiko (104 x 70,5 cm) eta lanketa zorrotzeko marrazkia egin behar izan zuen ikatz-ziriz. Marrazki hori margolariaren eta bere familiaren eskuetan egon zen beti, «la Caixa» Fundazioak Palman duen arte bildumako funtsetan sartu zen arte [5. ir.]⁷. Marrazki horrek eta Amoedo doktorearen koadroak argi erakusten digute margolariak zein puntutaraino esperimintatu eta landu zuen *Biluzia mahastiaren azpian* konposizioa, obra horri behin betiko ekin aurretik.

Biluzia mahastiaren azpian lana Buenos Airesen jarri zuen Angladak ikusgai lehen aldiz, Maiatzaren Mendurrenako Nazioarteko Arte Erakusketan, 1910eko urria-azaroan. Hura zen XX. mende hasieran Latinoamerikan egiten zen nazioarteko erakusketa artistikorik handienetakoa, handiena ez bazen. Ricardo Güiraldes idazle argentinar handia (Anglada eta bera lagun handiak ziren Parisen) izan zen erakusketa hartako batzorde exekutiboko presidentea. Margolariak bere lanaren antologia eraman zuen bertara, garrantzia emanez bere gai valentziar nagusiei baina Paris gautarrari buruzko koadro finak ahaztu gabe, eta, horrekin batera, zenbait akademia-lan eta ikatz-ziriz egindako estudioak. Margolariak ohitura hori zuen, argi eta garbi erakusteko ondo zekiela marrazkiak egiten; izan ere, kritikak jasotzen zituen, bere margoek gehiago lantzen zutelako

7 Marrazki hau C165 zenbakiarekin dago katalogatuta gure monografian (Fontbona/Miralles 2006, 196. or.). Pinturari buruzko gure monografian (lehen aipatua), marrazkia erreproduzitu genuen olioiz egindako irudi handiaren ondoan, ikatz-ziriaren eta olioaren arteko konparazioa egiteko; era berean, Fundació «la Caixa» fundazioaren El món d'Anglada-Camarasa (Bartzelona 2006) erakusketan ere, elkarren ondoan jarri nituen.



6. Hermen Anglada-Camarasa (1871-1959)
Gandíako nekazariak, 1909
 Olioa mihisean. 240 x 338 cm
 Asturiasko Printzerriko gobernua, Masaveu Bilduma
 Gordailuan Asturiasko Arte Ederren Museoan, Oviedo

kontzeptu kromatikoa, marrazkigintza arloa baino⁸. Erakusketa hartan, Angladak sekulako arrakasta izan zuen, eta *Valentzia* izeneko olioak –gero *Gandíako nekazariak* izenarekin ezagutuko zen [6. ir.]– erakusketako Sari Nagusia eskuratu zuen, Ignacio Zuloaga eta Eliseu Meifrènen lan banarekin batera.

Biluzia mahastiaren azpian lanak erakusketa honetan parte hartu zuela jakinda, esango nuke koadroa 1909koa edo 1910. urtearen hasierakoa dela, zeren eta margolariari ezagutzen zaion aurreko erakusketan, Bartzelonako Parés aretoan egindakoa 1909ko apiril-maiatzean, sei koadro folkloriko garrantzitsurekin hartu zuen parte (gehienak gai valentziarrekoak), eta aipatutako biluzia ez zegoen bertan. Eta pentsatzekoa da, ordurako pintatuta egonez gero, Angladak aukera hura aprobetxatuko zuela koadroa ezagutzera emateko.

Biluzia mahastiaren azpian presente egon zen hurrengo erakusketan, Angladak Buenos Airesen baino are arrakasta handiagoa lortu zuen. Erroman izan zen, Esposizione Internazionale delle Belle Arti delakoan. Hori ere, Argentinakoa bezala, sekulako erakusketa izan zen, eta nazioarteko deialdi artistiko gisa planteatu zen.

Bere bizitzan zehar, Anglada-Camarasak nazioarteko erakusketa garrantzitsu askotan hartu zuen parte, baina, beharbada, mundu mailan zeukan ospea inoiz ez zen hain agerian geratu Erromako hartan bezala. Han erakusitako hamabost lanetako bat ere ez zen Parisi buruzkoa: gai folklorikoen kromatismoa –horietako erdia gai valentziarrekoak ziren– erabat nagusitu zitzaion Parisiko gaueko bizimodu azalekoari buruzko koadroen dekadentismo finari.

⁸ Angladak Argentinarekin izan zuen harreman estuari dagokionez (paradoxikoki, inoiz ez zen bertan egon, nahiz eta, Espainiako Gerra Zibilaren aurretik, serio pentsatzen ibili zen hara bizitzen joateko aukera), ikus Miralles/Sanjuán 2003.

Anglada sendo ari zen Erroman: erakusketa egin baino urtebete lehenago, batzorde exekutiboak bermatuta utzi zuen Anglada han izango zela, eta areto berezia gorde zion Espainiari esleitutako gune ofizialetik aparte, zeren eta margolariak inoiz ez zuen erakusketa kolektiboetan parte hartu nahi izaten, Espainiako ordezkartzaren barruan jartzen bazuten. Bere partaidetzaren iragarpenak sortutako jakin-mina izugarria izan zen. Erakusketa inauguratzeaz zegoenean, Anglada konturatu zen Maxim Gorky idazle errusiar handia margolariaren aretoan sartu nahian zebilela, ez baitzuen Erroma utzi nahi erakusketa hura ikusi gabe, artean itxita bazegoen ere⁹.

Erakusketako lanik onenak saritu behar zituen nazioarteko epaimahaiaren erabakia jakinarazi behar zenean, desadostasun ugari sortu ziren, eta, beraz, faboritoetako batek ere ez zuen gehiago nahikorik lortu sari nagusi bietako bat lortzeko (bi sariak berdinak ziren, bakoitza 50.000 lirakoa), eta, ondorioz, araudiak halakorik aurreikusten ez bazuen ere, erabaki zen 100.000 lirak hamar artistarik bozkatuenean artean banatzea. Anglada euretako bat zen, baina ez hori bakarrik: itxura denez, bozkatuena izan zen; hori dela eta, bera izan zen sari konpartituaren formulari uko egin zion bakarra, beste sarituen artean maila izugarriko figurak zeuden arren: Gustav Klimt, Ivan Mestrovic, Antonio Mancini, Anders Zorn, Vilhelm Hammershoi edo Ignacio Zuloaga, besteak beste.

Biluzia mahastiaren azpian lana, *Nu à la grille* izenburu frantsesarekin aurkeztua, Anglada-Camarasak bizi izan zuen nazioarteko erakusketarik garrantzitsueneko lanetako bat izan zen, eta nazioarteko argitalpenetan ere agertuko zen, besteak beste, 1912. urtearen hasieran, *Die Kunst* aldizkari bavariarrean, margolariari eskainitako artikulu monografiko garrantzitsu bat ilustratuz. Artikulu hura Vittorio Pica kritikariak idatzi zuen, zeina, hain zuzen ere, Erromako epaimahaiko kidea izan baitzen¹⁰. Ondoren, Wallace Thompsonen testu luze bat ilustratzeko ere agertu zen, Chicagoko *Department of The Fine Arts* aldizkarian. Ondorioz, Anglada ezagutzera eman zen Estatu Batuetan, ez soilik testuari esker, ezpada bertan agertzen ziren hemezortzi erreproduzioei esker ere¹¹.

Thompsonen arabera, artista europarrak Ekialdera irekitzen zirenean, Japoniara begira jartzen ziren, baina Angladak urrats bat gehiago eman eta persiarrengana bueltatu zen, zeintzuen estetika mairuengandik jaso baitzuen Espainiak. Angladak mundu persiarrarekin zeukan harremana oso agerikoa zen garai hartan, eta, hain zuzen ere, Joaquín Sorollak «Persiarra» deitzen zion Angladari¹². Beste alde batetik, ikusi dugun moduan, Espainia mairuari buruzko topikoek ondo sustraituta jarraitzen zuten atzerritarren begietan. Edonola ere, bazirudien artikulu luze hark iragarri egiten zuela handik urte batzuetara Angladaren lanak Ipar Amerikan izango zuen presentzia luze eta etengabekoa, hogeiko eta hogeita hamarreko hamarkadetan.

Hori dela eta, ez da arraroa *Biluzia mahastiaren azpian* koadroak, nazioartean hainbeste aldiz erakutsi zenak, oihartzuna izatea nazioarteko beste lan batzuen artean. Hori horrela, Fritz Klimsch eskultore alemaniarren brontzezko *Maja* lanak (1939-1940koa) [7. ir.], batzuetan *Iturria* ere deitutakoak, Angladaren *Biluzia mahastiaren azpian* margoko emakumearen jarrera antzekoa dauka, eta, gainera, gai folkloriko espainiarra islatzen du, hortik datorkiolarik izenburua. Klimsch bere garaiko eskultore alemaniarrik ospetsuenetakoa izan zen, baina gaur egun nahiko ahaztuta dago, seguruenik bere sonaren maila gorena Alemania naziaren testuinguruan lortu zuelako¹³.

9 «L'ammirazione di Gorki...» 1911.

10 Pica 1912. Lanaren izenburua *In der laube* zen, eta 204. orrialdean zegoen erreproduzituta.

11 Thompson 1914. Lanaren izenburua *Under the trellis* zen, eta 426. orrialdean zegoen erreproduzituta.

12 Hala dio Gayk 1946, 78. or.

13 Rittich 1940.



7. Fritz Klimsch (1870-1960)
Maja, 1931
 Brontzea. 170 cm (altuera)
 Heimatmuseum Berlin Köpenick

Edozelan ere, 1914an Gerra Handia piztu zen (gero Lehen Mundu Gerra izenarekin ezagutuko zena, alegia), eta horrek modu bortitzean moztu zuen Angladaren ibilbidea, unerik distiratsuenean zegoenean. Margolariak nazionalitate frantziarra zeukan, eta, une hartan, Mallorcan zegoen. Ez zen gehiago Parisera itzuli, etxebizitza eta tailerra han zituen arren. Eta, gatazka hain handia zela ikusita, eta albiste kontraesankorrez betetako garai hartan, espainiar nazionalitatea berreskuratu zuen, Francesc Cambó politikari eta abokatuaren laguntzaz. Anglada Cambóren laguna zen, baina ez ziren joera politiko berekoak; izan ere, Cambó Lliga Regionalista kataluniarraren liderra zen, eta margolaria, berriz, errepublikanismoaren inguruan mugitzen zen.

Bere bizitzak izandako aldaketa erradikalaren ondorioz, Angladak bere karrera ere berbideratu behar izan zuen. Nazioarteko erakusketetan izan zituen partaidetza ugariak bat-batean eten ziren, eta artistak espainiar Estatuko publikoarekin sendotu zuen harremana, zeren eta, ordura arte, Bartzelonan baino ez zituen egin zenbait erakusketa. Eta, hantxe bertan, hirian aurrekaririk ez zuen erakusketa pertsonal handia egitear zegoen: Palau de Belles Arts delakoan izan zen, 1915eko maiatz-ekainean, eta *Biluzia mahastiaren azpian* koadroak 22. zenbakia izan zuen, aurkeztu zituen hogeita bederatzitan katalogoan¹⁴. Erakusketa hura gertakari handia izan zen, baina hiriak ez zion ezer erosi, punta-puntako artista eta musikariek erosteko eskatu zuten arren. Beharrezkoak ziren mekanismoak martxan jarri ziren, baina ez zen akordiorik lortu baldintza ekonomikoen inguruan¹⁵.

Erakusketa zabalik egon zen garaian, *Intelektual espainiarren manifestua* plazaratu zen, elkartasuna agertuz aliatuen kausarekin. Sinatzaileetako bat Anglada-Camarasa zen. Aurrerago, margolariak eskaera ezohiko eta garrantzitsua jaso zuen: aipatutako manifestu politikoko sinatzaileetako batzuek –Pérez Galdós, Azorín, Romero de Torres, Gregorio Marañón, Ramón Pérez de Ayala, Anselmo Miguel Nieto, Amadeu Vives, Valle-Inclán, Manuel B. Cossío, Luis Araquistain, Unamuno, Mateu F. de Soto, José Ortega y Gasset, Martínez Sierra eta Julio Antonio– eta beste zenbaitek –Baroja anaiak, Juan de la Encina, Jacinto Benavente, Ramón Gómez de la Serna, Joaquín Dicenta, Lluís Bagaria edo Eugenio Noel, besteak beste– gutun kolektiboa bidali zioten Angladari 1915eko abenduaren 5ean, modu serioan eskatuz bere obraren erakusketa handi bat egiteko Madrilen.

¹⁴ Erakusketa zela eta, koadroa Bartzelonako prentsan agertu zen erreproduzituta, bai eta Riquer 1915ean ere.

¹⁵ Ikus Boronat i Trill 1999, 359.-362. or.



8. Hermen Anglada-Camarasa, *Bilboko Nazioarteko Lehenengo Pintura eta Eskultura Erakusketan*, 1919


Proiektuak aurrera egin zuen, eta Madrilgo erakusketa 1916ko ekain-uztailean egin zen, Retiroko Arte Ederretako Jauregian, Arte Ederretako Zirkuluak antolatuta. *Biluzia mahastiaren azpian* koadroa ere bertan zen, hogeita hamabi obraz osatutako katalogoko 25. zenbakiarekin. Bartzelonako erakusketa baino are gertakari entzutetsuagoa izan zen¹⁶; izan ere, Bartzelonan, Angladaren berrikuntza estetikoaren maila nahikoa ezaguna zen, baina, erakusketa hari esker, Espainiako hiriburuak lehenengo kontaktu masiboa izan zuen sustrai paristarreko pintura berritzaile harekin eta, azken batean, nazioarteko arte berriaren ildo hegemonikoarekin.

Madrilen mota guztietako erreakzioak egon ziren: aldekoak eta kontrakoak. Kontrako iritziak asko eta zaratatsuak izan ziren, eta, hain zuzen ere, batzuek Velázquez eta Goyaren izenak plazaratzen zituzten, Angladaren modernitatearekin kontrajartzeko; beste batzuek, aldiz, kontzeptu ugari jartzen zituzten mahai gainean—denak faltsuak—: separatismoa, nabarmenkeria, homosexualitatea, anarkismoa, buruko gaixotasuna edo abertzaletasun eza. Antagonistetako batzuen ustez, erakusketa hura arriskutsua zen Espainiako gazteentzat¹⁷. Antza denez, lehen, orain bezala, hiperbole ideologiko erreakzionario horiek maiz egiten zuten habia Madrilgo prentsan.

Dirudenez, Madrilgo erakusketaren ostean, *Biluzia mahastiaren azpian* lana ez zen gehiago jarri jendarean, 1919an Bilbora heldu zen arte. Hain zuzen ere, Bilbon erakusketa bikain bat antolatu zen, Pintura eta Eskulturako Nazioarteko Erakusketa; urrian zen egitekoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu zuen, zeinaren buru Ramón de la Sota ontzi-jabe, industrial, abertzale eta anglofilo aparta baitzen. Garai hartan, Inperio Britainiarreko zaldun titulua lortzeko meritua egin zituen, eta handik gutxira eman zioten aipatutako titulu hori. Erakusketa hartan, Anglada-Camarasaren margoez gain, Euskadiko gizarteak zuzenean ikusi ahal izan zituen Cézanne, Van Gogh, Matisse, Gauguin, Mary Cassat, Serusier edo Van Dongenen lanak, beste askoren artean [8. ir.].

16 Lan gehienak berberak ziren erakusketa bietan, baina Bartzelonan egondako bi (Sevillarra eta Cartagenarra) ez ziren Madrilen egon, eta, aldiz, Bartzelonan egon ez ziren bost Madrilen erakutsi zituen (Ijitoa, Ijitoa (bioleta), Palko urdina, Zerra valentziarrak eta Mitxoletadun ijitoa).

17 Ikus Fontbona/Miralles 1981, 140.-142., 150.-154. eta 227. or.



9. Bilboko Nazioarteko Lehenengo Pintura eta Eskultura Erakusketaren katalogoa, 1919
Azala, erakusketa-aretoaren plano eta Anglada-Camarasaren partaidetzari buruzko orrialdea

Sasoi hartan, Angladaren eta Francesc Cambó politikariaren arteko harremana bere unerik gorenean zegoen, eta, horrela, Cambó bere bildumagilerik garrantzitsuenetako bat izatera heldu zen. Sustapen Ministerioan denbora laburrez aritu ostean, Cambó izan zen De la Sota bultzatu zuena margolariari gonbidapena bidal ziezaion –biak ondo konpontzen ziren–, eta, gero, Cambó eta Joan Ventosa i Calvell –Liga Regionalistako beste gizon indartsuenetako bat– beti egon ziren Angladaren partaidetzaren atzealdean eta antolakuntzan. Gustu pertsonaletatik haratago, Cambók, zeinak beti parametro politikoen arabera jokaten baitzuen, oso argi zeukan Anglada-Camarasa zela, margolari katalan bizidunen artean, nazioartean osperik handiena zuena, eta ezaugarri horrekin elkarrekintzan aritzea interesatzen zitzaion.

Bere aldetik, Gerra Handia amaitu ostean (gerragatik joan behar izan zen Paristik), Angladaren ibilbidea trantsizio-fasean zegoen. Bartzelona eta Madrilgo erakusketa indibidual handien ostean, Bilboko erakusketa bikainean areto propioarekin parte hartzeak sendotu egiten zuen margolariaren ekintza-ildoak; izan ere, bere asmoa zen Espainiako Estatuaren mugen barruan sona handia hartzea, bere garai kosmopolitak iraun zuen bitartean ez baitzioten kasu handirik egin bertan. Bartzelona eta Madrilgo aurreko erakusketetan bezala, Angladak *Biluzia mahastiaren azpian* aurkeztu zuen erakusketan, besteak beste [9. ir.]¹⁸.

Angladak hamalau lan eraman zituen Bilbora, aurreko bi antologikoetako bakoitzean erakutsitako piezen erdia, gutxi gorabehera. Alabaina, Bartzelonan eta Madrilgo egondako lanik garrantzitsuenetako batzuk, *Biluzia mahastiaren azpian* margoaz gain, Bilbon ere egon ziren: *Valentzia*, *Koroaren tangoa*, *Gandiako nekazariak* edo gorputz osoko emakumezko figura bakartietako batzuk, Angladak Parisko egonaldiko azken urteetan pintatutakoak. Antza denez, Bilbon erakutsitako obra bat baino ez zen egon Bartzelonako eta Madrilgo aurreko erakusketetan: *Pagodako maja* [10. ir.], 1914an Venezian aurkeztu zena¹⁹. Izan liteke, hala ere, Bartzelonako erakusketan koadro hori *Cartagenarra* izenarekin agertu izana, zeren eta, gaur egun, izen hori duen Angladaren koadroa ez dago behar bezala identifikatuta.

¹⁸ Bilbao 1919, 5. or. Katalogoko 11. zenbakia zeukan.

¹⁹ Hala ere, batzuetan, Angladak bere lanei jartzen zizkien izenburuak nahasgarriak izaten ziren, zeren eta obra bakar batek bi izenburu ere izan zitzakeen: adibidez, Gaueko tximeleta, maiz Moth ere deitzen zena, Phalène izenarekin egon zen Bilbon, eta sarri askotan, koadro horietako batzuk prentsan agertzen zirenean, izenburuak aldatuta agertzen ziren.

10. Hermen Anglada-Camarasa (1871-1959)
Pagodako maja, c. 1913
 Olioa mihisean. 205 x 135 cm
 Col·lecció HAC de la Fundació "la Caixa"
 Inb. zenb. HACF0798



© Babestutako materiala

Angladak Bilboko erakusketan izan zuen presentziak ere inpaktu handia sorrarazi zuen²⁰. Garai hartan goraka zihon artista gazte berritzaile batek, gero ilustratzaile aipagarria izango zenak, Carlos Sáenz de Tejadak, alegia, testigantza sakona eman zuen, eta transkribatzeko modukoa da: Bilboko erakusketan Angladaren lana ikusi zuenean, lotsa galdu eta hauxe idatzi zuen bere buruarentzat: «Aretoan sartu nintzenean, inguruan jenderik ez balego, txinatarrak bezala ahuspez jarriko nintzen»; eta zioen: «Koloreen sentsualtasunik handiena dauka, plazer-bainu bat da hezitako erretinarentzat; zer gauza fina, nolako kolore-konposizioa, zeinen ona, itzela, aparta, biba zure ama!!!»; eta pribatuan idazteak ematen duen jarioarekin, aitortzen zuen Angladaren figurak sekulako atsegina ematen ziola: *Miloko Venus* rumba dantzatzen ikusteak bezainbestekoa²¹.

Euskal intelektualtasun berriko indar biziek, Ramiro de Maeztuk eta Pirinioetako Eskola Erromatarra izenekoak, bat egin zuten Angladaren lanarekin, edo, hobeto esanda, lan horrek modernitatearen eta europazaletasunaren arloan zeukan esanahiarekin. Maeztuk adierazi zuen margolaria oso hurbil zegoela Migel Angel edo Tiziano handiengandik, eta argi ikusi zuen Angladak ez zigula hitz egin nahi pintatzen zuenari buruz, ezpada pintatzeko moduari buruz. Hala ere, Maeztu saiakera-egile ospetsuak, zeina ideologoa ere baitzen, ez zuen konpartitzen «arte arteagatik» ikuspuntu angladarra, eta zera zioen: «Angladak hain artista handia merezi ez zuten gaiak adierazi ditu, fintasun eta kemen handiz; bada, orain, ezaugarri bi horien sintesia mereziko duten ideal plastikoak islatzeko modua aurkitu behar da»²². Lehen aipatutako eskolako beste intelektual batzuk, adibidez Pedro Murlane Michelena eta José Félix de Lequerica, margolariaren omenez egin zen oturuntzara joan ziren; Sociedad Bilbaína egin zen, urriaren 13an, eta, bertan, hitzaldi konplizeak ere eskaini zituzten margolariarekin batera.

²⁰ Ikus Zubialde 1988, 509. or., edo «Las Exposiciones Bienales...» 1920, 79. or.

²¹ Segovia 2003, 25. or.

²² Ramiro de Maeztu: «La España de hoy. El color de Anglada» (1919ko irailaren 6a) eta «La España de hoy. Los asuntos de Anglada» (1919ko irailaren 18a). Testu osoak Angladaren familiaren artxiboan gordetako egunkari-ebakin batzuetan kontsultatu ahal izan dira. Hala ere, ezin izan da jakin egunkariaren izena ez argitalpenaren lekua.

Angladak Aldundiari saldu nahi zion erakusketa osoa, modu horretan berari eskainitako areto bat ireki zedin Bilboko Museoa. Baina antolatzaileek ez zeukaten horretarako baliabiderik, eta margolaria, bere ohiko eran, ez zen inondik ere prest agertu prezioa jaisteko. Antolatzaileek *Gandiako nekazariak* eskuratu nahi zuten, Anglada helduaren obrarik enblematikoenetakoa eta 1910eko Buenos Airesko Sari Nagusia irabazitakoa (esan dugun bezala, lan hori ere erakusketan zegoen); baina kontu ekonomikoak zirela eta, ezin izan zuten erosi neurritz eta ospez hain handia zen obra hura. Bere orde, Bilbok *Biluzia mahastiaren azpian* erosi zuen, katalogoko 11. zenbakiduna, hau ere pieza nabarmena, baina *Gandiako nekazariak* baino neurri txikiagokoa eta prezio merkeagokoa.

Prentsak arreata handia eskaini zion erakusketa horri, eta erreakzio politikoak ere izan ziren: Liga Monarkikoaren ustez, erakusketa separatista zen; beste batzuen iritziz, Bilboko erakusketan Angladaren lan bat erosi izanak kontrastea egiten zuen hiru urte lehenago Bartzelonako erakusketan gertatu zenarekin, orduko hartan ez baitzen obrarik erosi. Arlo artistiko hutsari dagokionez, Angladaren modernitatea gauza gustagarria zen, baina, gainera, nabarmenkeria futurista eta abangoardistetatik urrun zegoen, eta hori ere gustuko zerbaite zen; izan ere, joera horiek kezkarri samarrak ziren, urte batzuez ezkutuan egon ostean (gerra aurretik oso zirkulu txikietara mugatzen ziren)²³.

Bizkaiko Foru Aldundiko ondare-fondoetan sartu zutelarik, *Biluzia mahastiaren azpian* lanaren ordura arteko bizitza nomada amaitu egin zen (Europar eta Amerikan erakutsia izan ostean), baina obra antologikoa izaten jarraitu zuen; hori horrela, S. Hutchinson Harrisek Angladari buruzko monografia handia argitaratu zuenean, ordurako Bilbon zegoen mihisea liburua ilustratzeko aukeraturakotako bat izan zen²⁴. Geroztik, askotan erreproduzitu edo aipatu izan da, eta erakusketa askotan hartu izan du parte²⁵.

23 Ikus Fontbona/Miralles 1981, 168.-171. eta 227.-228. or.

24 Harris 1929, XL. lam.

25 *Biluzia mahastiaren azpian* margoak erakusketa hauetan hartu izan du parte: *Exposición Internacional del Centenario* (Buenos Aires, 1910eko urria-azaroa), *Esposizione Internazionale delle Belle Arti* (Erroma, 1911ko maiatza-abendua), *Exposición Hermén Anglada-Camarasa* (Bartzelona, Palau de Belles Arts, 1915eko maiatza-ekaina), *Exposición Anglada-Camarasa* (Madril, Arte Ederren Zirkulua, Retiroko Erakusketa Jauregia, 1916ko ekaina-uztaila), *Primera Exposición Internacional de Pintura y Escultura* (Bilbao, 1919 abuztua-iraila), *Anglada Camarasa* (Bartzelona, Centre Cultural de la Caixa de Pensions, 1981eko abendua), *Anglada Camarasa* (Madril, Pentsio Kutxako Zerbitzuen Zentroa, 1981eko otsaila), *Anglada Camarasa* (Palma, Sa Llotja, Caixa de Pensions-eko Obra Kulturala, 1982ko maiatza), *Tesoros del Museo de Bellas Artes de Bilbao. Pintura 1400-1939* (Madril, Udal Museoa, 1989ko azaroa-1990eko urtarrila), *Centro y periferia en la modernización de la pintura española* (Madril, Velázquez Jauregia, 1993ko abendua-1994ko martxoa; Bilbao, Bilboko Arte Eder Museoa, 1994ko maiatza-ekaina), *Anglada Camarasa. Bere giroak* (Bilbao, Bilboko Arte Eder Museoa, 1996ko iraila-azaroa), *Pintura simbolista en España (1890-1930)* (Madril, MAPFRE Vida Kultur Fundazioa, 1997ko otsaila-apirila), *Plástica y texto en torno al 98* (Madril, Arte Ederren Zirkulua, 1998ko urria-abendua), *De Picasso a Bacon. Arte Contemporáneo en las Colecciones del Museo de Bellas Artes de Bilbao* (Segovia, Esteban Vicente Arte Garaikidearen Museoa, 1999ko urtarrila-apirila), *Confines. Miradas, discursos y figuras en dos cambios de siglo, 1900-2000* (Madril, Espainiako Plazako Erakusketa aretoa, 2000ko apirila-uztaila), *Anglada Camarasa (1871-1959)* (Madril, MAPFRE Vida Kultur Fundazioa, 2002ko urtarrila-martxoa), *Julio Romero de Torres* (Bilbao, Bilboko Arte Eder Museoa, 2002ko urria-2003ko urtarrila), *Julio Romero de Torres. Símbolo, materia y obsesión* (Kordoba, Mesedetako Jauregia, 2003ko otsaila-maiatza), *Bilbao a Genova. La cultura cambia le città* (Genoa, Palazzo Ducale, 2003ko urria-2004ko urtarrila), *El món d'Anglada Camarasa* (Bartzelona, CaixaForum, 2006ko azaroa-2007ko martxoa; Palma, CaixaForum, 2007ko maiatza-uztaila). Obrari buruzko bibliografiari dagokionez, kontsultatu argitalpen hauek: Pica 1912, 204. or. (*In der laube* izenarekin); Thompson 1914, 426. or. (*Under the trellis* izenarekin); Riquer 1915; Bilbao 1919, 5. or.; Zubialde 1919, 317. or.; «Las Exposiciones Bienales...» 1920, 79. or.; Harris 1929, XL. lam.; López Naguil 1949; Madril 1954, s.p.; Fuster Mayans 1958, lam. (*Ijitoa mahastiaren azpian* izenarekin); Larco 1964, III. lib., 198. lam.; Areán 1971, 415. or.; Castillo 1971, 330. or.; Fuster Mayans 1974; Jardí 1975, 75. or., 67. lam. (*Emakume baten biluzia* izenarekin); Cela 1976 (*Emakume baten biluzia* izenarekin); Gaya Nuño 1977, 106. or., 106. ir.; Rodríguez Alcalde 1978, 215. or. (*Emakume baten biluzia* izenarekin); Bengochea 1978, 404. or.; Bengochea 1980, 15. or., lam. (*Bakante* izenarekin); Bartzelona 1981, 41., 65. or. (*Nu sota la parra* izenarekin); Fontbona/Miralles 1981, 260., 89. or., C30 kat.; Madril 1982, 41., 65. or.; Palma 1982, 39. eta 61. or. (*Nu sota la parra* izenarekin); Mulas 1983, 39. or.; Zubialde 1988, 509. or.; Madril 1989, 128.-129. or.; Madril/Bilbao 1993, 137., 151. or.; *Gran enciclopedia de la pintura...* 1996, I. lib., 90. or. (*Nu davall la parra* izenarekin); Madril 1997, 68.-69. or.; Madril 1998, 102.-103., 163. or.; Iruña 1999, 17. or.; *Museo de Bellas Artes de Bilbao...* 1999, 173. or.; Segovia 1999, 19. or.; Madril 2000, 148. or. (alderantzikatutako erreprodukzioa); Calvo Serraller 2001, 42. or.; *Maestros antiguos y modernos...*, 2001, 98.-99. or.; «Anglada-Camarasa: el cambio...» 2002, 1. or.; Bilbao 2002, 65. or.; Madril 2002, 156.-157., 267. or.; Genoa 2003, 118.-119. or.; Kordoba 2003, 370. or.; Segovia 2003, 25.-27. or.; Madril/Bilbao 2004, 28. or.; Bartzelona/Palma 2006, 107., 196. or. (*Nu sota la parra* izenarekin); *Museo de Bellas Artes de Bilbao...* 2006, 132. or. (Francesc Fontbonaren fitxa).

BIBLIOGRAFIA

«Anglada-Camarasa : el cambio...» 2002

«Anglada-Camarasa : el cambio de siglo», *El Punto de las Artes*, Madrid, 642. zenb., 2002ko otsailaren 1-7a.

Areán 1971

Carlos Areán. *La pintura española : de Altamira al siglo XX*. Madrid : Giner, 1971.

Bartzelona 1981

Anglada Camarasa. [Erak. kat.]. Barcelona : Caixa de Pensions, 1981.

Bartzelona/Palma 2006

El mon d'Anglada Camarasa. [Erak. kat., Barcelona, Palma de Mallorca, CaixaForum]. Barcelona : Fundació "la Caixa", 2006.

Beaupuy/Gay/Top 2004

Anne de Beaupuy ; Claude Gay ; Damien Top. *René de Castéra : (1873-1955) : un compositeur landais au coeur de la musique française*. Anglet : Séguier, 2004.

Bengoechea 1978

Javier de Bengoechea. *Museo de Bellas Artes, Bilbao*. Bilbao : La Gran Enciclopedia Vasca, 1978.

Bengoechea 1980

—. *Catálogo de arte moderno y contemporáneo del Museo de Bellas Artes de Bilbao*. Bilbao : Banco de Vizcaya, 1980.

Bilbao 1919

Primera Exposición Internacional de Pintura y Escultura. [Erak. kat., Bilbao, Escuelas de Berástegui]. Bilbao, 1919.

Bilbao 2002

Julio Romero de Torres. [Erak. kat.]. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao, 2002.

Boronat i Trill 1999

Maria Josep Boronat i Trill. *La política d'adquisicions de la Junta de Museus, 1890- 1923*. Montserrat : Publicacions de l'Abadia, 1999.

Calvo Serraller 2001

Francisco Calvo Serraller. *Las cien mejores obras del siglo XX : historia visual de la pintura española*. Madrid : Tf Editores : Sociedad Estatal España Nuevo Milenio, 2001.

Castillo 1971

Alberto del Castillo. «El Museo de Arte Contemporáneo en el de Bellas Artes de Bilbao», *Goya*, 101. zenb., 1971, 326.-331. or.

Cela 1976

Camilo José Cela. *Enciclopedia del erotismo*. Madrid : Sedmay, 1976.

«El Dr. Oscar Amoedo...» 1900

«El Dr. Oscar Amoedo profesor de la Escuela Dental de París», *La Ilustración Española y Americana*, Madrid, 18. zenb., año 44, 1900eko maiatzaren 15a, 283, 292. or.

Fontbona/Miralles 1981

Francesc Fontbona ; Francesc Miralles. *Anglada-Camarasa*. Barcelona : Polígrafa, 1981.

Fontbona/Miralles 2006

—. *Anglada-Camarasa : dibujos : catálogo razonado*. Barcelona : Mediterrània, 2006.

Fuster Mayans 1958

Gabriel Fuster Mayans. *Anglada Camarasa*. Palma de Mallorca : Atlante, 1958.

Fuster Mayans 1974

—. «El colorismo y el abstraccionismo de Anglada Camarasa», *Revista Balear*, Palma de Mallorca, 34/35. zenb., 1974ko 1. hiruhilekoa.

Gay 1946

Julio Gay. *P. Casas Abarca*. Barcelona : Tipografía La Académica, 1946.

Gaya Nuño 1977

Juan Antonio Gaya Nuño. *Arte del siglo XX*. Madrid : Plus Ultra, 1977 (col. *Ars Hispaniae*, XXII. libk.).

Genoa 2003

Bilbao a Genova : la cultura cambia le città. [Erak. kat., Genoa, Palazzo Ducale]. Milano : Skira, 2003.

Gran enciclopèdia de la pintura... 1996

Gran enciclopèdia de la pintura i l'escultura a les Balears. Palma de Mallorca : Promo Mallorca, 1996.

Harris 1929

S. Hutchinson Harris. *The art of H. Anglada-Camarasa : a study in modern art*. London : Leicester Galleries, 1929.

Iruña 1999

Entre la figuración y la abstracción : arte contemporáneo en las colecciones del Museo de Bellas Artes de Bilbao. [Erak. kat.]. Pamplona : Museo de Navarra, 1999.

Jardí 1975

Enric Jardí. «El simbolismo y el art nouveau en España», Alastair MacKintosh. *El simbolismo y el art nouveau*. Barcelona : Labor, 1975, 59.-68. or.

Kordoba 2003

Julio Romero de Torres : símbolo, materia y obsesión. [Exhib. Cat., Kordoba]. Madrid : Tf Editores, 2003.

«L'ammirazione di Gorki...» 1911

«L'ammirazione di Gorki pel pittore Anglada», *La Stampa*, Turin, 1911ko apirilaren 26a.

Larco 1964

Jorge Larco. *La pintura española moderna y contemporánea*. Madrid : Castilla, 1964.

«Las Exposiciones Bienales...» 1920 (1981)

«Las Exposiciones Bienales de Bilbao», *Arte Vasco : revista mensual de la Asociación de Artistas Vascos Bilbao*, Bilbao, año 1, 4. zenb., 1920ko apirila, 79. or. (errepod. faks. *Hegalez hegal* argitalpenean, 2/3. zenb., 1981eko maiatza).

López Naguil 1949

Gregorio López Naguil. «Un maestro a través de su discípulo : Anglada Camarasa», *Lyra*, Buenos Aires, 1949ko martxoa-apirila.

Madril 1954

Homenaje a H. Anglada Camarasa : Exposición Nacional de Bellas Artes. [Erak. kat.]. Madrid : Dirección General de Bellas Artes, 1954.

Madril 1982

Anglada Camarasa. [Erak. kat.]. Madrid : Caja de Pensiones, 1982.

Madril 1989

Tesoros del Museo de Bellas Artes de Bilbao : pintura : 1400-1939. [Erak. kat., Madril, Museo Municipal]. Juan J. Luna (arg.). Madrid : Ediciones «El Viso», 1989.

Madril 1997

Pintura simbolista en España (1890-1930). [Erak. kat.]. Madrid : Fundación Cultural Mapfre Vida, 1997.

Madril 1998

Plástica y texto en torno al 98. [Erak. kat., Madril, Círculo de Bellas Artes]. Madrid : Consejería de Educación y Cultura, Centro de Estudios y Actividades Culturales, 1998.

Madril 2000

Confines : miradas, discursos, figuras en los extremos del siglo XX. [Erak. kat., Madril, Sala de Exposiciones de Plaza de España]. Madrid : Consejería de Cultura, Dirección General de Archivos, Museos y Bibliotecas, 2000.

Madril 2002

Anglada Camarasa, 1871-1959. [Erak. kat.]. Madrid : Fundación Cultural Mapfre Vida, 2002.

Madril/Bilbao 1993

Centro y periferia en la modernización de la pintura española (1880-1918). [Erak. kat., Madril, Palacio de Velázquez; Bilbao, Museo de Bellas Artes de Bilbao]. Madrid : Ministerio de Cultura, Centro Nacional de Exposiciones y Promoción Artística ; Barcelona : Àmbit, 1993.

Madril/Bilbao 2004

Juan de Echevarría [1875-1931]. [Erak. kat.]. Madrid : Fundación Cultural Mapfre Vida ; Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao, 2004.

Maestros antiguos y modernos... 2001

Maestros antiguos y modernos en las colecciones del Museo de Bellas Artes de Bilbao. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao, 2001 (euskarazko ed., *Antzinako maisuak eta maisu modernoak Bilboko Arte Eder Museoaren bildumetan*; ingelesezko ed., *Ancient and Modern Masters in the Collection of the Bilbao Fine Arts Museum*).

Miralles/Sanjuán 2003

Francesc Miralles ; Charo Sanjuán. *Anglada-Camarasa y Argentina*. Sabadell : AUSA, 2003.

Mulas 1983

Ignacio Mulas. «La pintura del bienestar», *Antiquaria*, Madrid, 1. zenb., 1983, 38.-42. or.

Museo de Bellas Artes de Bilbao... 1999

Museo de Bellas Artes de Bilbao : maestros antiguos y modernos. Bilbao : Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa = Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 1999.

Museo de Bellas Artes de Bilbao... 2006

Museo de Bellas Artes de Bilbao : guía. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao, 2006 (ingelesezko ed., *Bilbao Fine Arts Museum : Guide*).

Palma 1982

Anglada Camarasa. [Erak. kat.]. Palma de Mallorca : Sa Llotja : Caixa de Pensions, 1982.

Pica 1912

Vittorio Pica. «Hermen Anglada y Camarasa», *Die Kunst*, Munich, 1912ko otsailaren 1a, 196.-209. or.

Riquer 1915

Alexandre de Riquer. «Hermen Anglada III», *El Día Gráfico*, Barcelona, 1915eko maiatzaren 28a.

Rittich 1940

Dr. Werner Rittich. «Fritz Klimsch zum 70. Geburtstag des Künstlers», *Die Kunst im Deutschen Reich*, München, 4. urtea, 2. zenb., 1940ko otsaila, 58.-59. or.

Rodríguez Alcalde 1978

Leopoldo Rodríguez Alcalde. *Los maestros del impresionismo español*. Madrid : Ibérico Europea de Ediciones, 1978.

Segovia 1999

De Picasso a Bacon : arte contemporáneo en las colecciones del Museo de Bellas Artes de Bilbao. [Erak. kat.]. Segovia : Museo de Arte Contemporáneo Esteban Vicente, 1999.

Segovia 2003

Tejada y la pintura : un relato desvelado : 1914-1925. [Erak. kat., Segovia, Sala de Exposiciones de Caja Segovia]. Segovia : Caja Segovia, Obra Social y Cultural, 2003.

Thompson 1914

Wallace Thompson. «The Art of the Spaniard Anglada», *The Fine Arts*, Chicago, XXXI. libk., 3. zenb., 1914ko iraila, 420-432. or.

Zubialde 1919 (1988)

Ignacio de Zubialde. «Exposición Internacional de Pintura y Escultura», *Hermes : Revista del País Vasco*, Bilbao, 46.-47. zenb., 1919ko abuztua-iraila, 297-324. or. (ed. faks., Bilbao : Idatz Ekintza, 1988, III. libk., 443.-516. or.).